

BESTELAKO XEDAPENAK

GOVERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

1652

EBAZPENA, 2021eko otsailaren 26koa, Araubide Juridikoaren sailburuordearena, zeinaren bidez argitara ematen baita Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen akordio bat. Akordio hori lege honen arlokoa da: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.

Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoaren 33.2 artikuluan aurreikusten den akordioa egin ondoren, eta artikulua horren beraren c) letran ezarritakoarekin bat etorritik, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen akordio bat, lege honen arlokoa dena: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena (ikus ebazpen honen eranskina).

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 26a.

Araubide Juridikoaren sailburuordea,
SABINO TORRE DÍEZ.

ERANSKINA

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAK ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
ADMINISTRAZIOAK OSATUTAKO ALDEBIKO LANKIDETZA-BATZORDEA

Akordioa, Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearena, lege honen arlokoa: 11/2019 Legea, abenduaren 20koa, Euskadiko Kooperatibena.

Estatuko Administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordeak honako akordio hau egin du:

1.— Estatuko Administrazio Orokorrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak osatutako Aldebiko Lankidetzaren Batzordearen 2020ko maiatzaren 11ko akordioa betetzeko xedez sortutako lantaldeak aurretik egindako negoziazioekin bat, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 124.1, 125.3 eta 157. artikuluetan xedatutakoaren gainean azaldu diren eskumen-desadostasunak aztertzeko eta konponbide-proposamenak egiteko helburua izanik, bi alderdiek desadostasun horiek konpondutzat hartu dituzte, baldintza hauen arabera:

A) Adierazitako legearen 124.1 eta 125.3 artikuluei buruz sortu den gatazkari dagokionez, aintzat hartuta Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenaren uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 27.1 artikulua bidez ezabatu egin zela aseguruaren mutuek, sozietate kooperatiboek eta gizarte-aurreikuspeneko mutualitateek prima aldakorraren edo beste asoziazio-forma batzuen bidez jarduteko aukera, Euskal Autonomia Erkidegokoak hitzematzen du legeria-egokitzapena sustatuko duela, uztailaren 14ko 20/2015 Legeari lotzeko; horrenbestez, abenduaren 20ko 11/2019 EAEko Legearen 124.1 artikuluan aipatzen diren aseguru-kooperatibek prima finakoaren bidez soilik jardun ahal izango dute.

B) Adierazitako legearen 157. artikuluari buruz sortu den gatazkari dagokionez, bi alderdiek uste dute manu horretan jasotako edukia aplikatu beharrekoa den oinarritzko legeriaren arabera interpretatu behar dela; hau da, sektore publikoko kontratuei buruzko oinarritzko legerian ezarritako baldintzetan.

2.— Akordio hau Konstituzio Auzitegiari jakinaraziko zaio, Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 33.2 artikuluan adierazitako organoetatik edozeinen bidez, manuan bertan adierazitako ondorioak izan ditzan, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko ministroa,
MIQUEL OCTAVI ICETA I LLORENS.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.